


# Pedagogiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



## II. MODULUA

HEZKUNTZA LANBIDEAK

Moduluko gida



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

## AURKIBIDEA

■ LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK: HEZKUNTZA LANBIDEAK .....	2
■ MODULUAREN IRAKASGAIK .....	2
■ MODULUAREN (DILAN) DIZIPLINARTEKO LANA .....	3
○ EGIN BEHARREKOA .....	3
○ METODOLOGIA .....	3
○ IKASGAIEN EKARPENA DILANARI .....	4
■ DILANA BURUTZEKO PROZEDURA .....	6
■ EGUTEGIA .....	7
■ TXOSTENAREN EGITURA .....	8
■ MODULUAREN JARDUERA DIZIPLINARTEKOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK .....	9
■ IRAKASGAIEN PROGRAMAK .....	10

## ■ LANDU BEHARREKO KOMPETENTZIAK

1. Gizarte-hezkuntzako esku-hartzeen eta horien jarduera profesionaleko esparruaren oinarri pedagogikoak eta arauemaileak ezagutzea eta ulertzea, nazioarteko ikuspuntutik.
2. Pedagogoen eta hezitzailearen esanahia eta ezaugarri nagusiak zehaztea, gaur egungo munduko hezkuntza-lanbideekin lotuta.
3. Hezkuntza-iritzia ekoiztea, printzipio etiko eta deontologikoetan oinarritua, eta giza eskubideei, genero-ikuspegiari eta profesionalaren erantzukizunari lotuta.
4. Komunikazioaren oinarriko elementuak identifikatzea taldeen testuinguruan; hartara, hezkuntza-harreman egokia ezartzeko eta ikasketa-dinamikan bertan txertatutako hezkuntza-harremana ezartzeko, garapen pertsonalari eta taldekoari zuzendutakoa.
5. Jendaurrean, ahoz, gizarte-hezkuntzako gaietako buruzko ideiak, argumentuak eta abar komunikatzeko gai izatea, baliabide didaktikoetan oinarrituta.
6. Txostenak behar bezala arrazoituta idaztea eta horretarako ezarritako irizpide formalak erabiltzea.
7. Ikasketako jarduerak eta lanak egiteko jarrera positiboa izatea.
8. Lan-taldeetan modu arduratsuan eta etikoan lan egitea, lan-taldeen ahalmena azpimarratuz eta zailtasunak hautematea eta ebaztea nabarmenduz.

## ■ MODULUAREN IRAKASGAIAK

 PEDAGOGIAKO GIDA OROKORRA (PDF)		 PEDAGOGIAKO weba	
IKASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
1	M2- Hezkuntza lanbideak	 Hezkuntza Komunikazioa eta Harremana  Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak  Identitate eta Garapen Profesionala  Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia  Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak	6 6 6 6 6

Lehenengo moduluko lanei jarraipena eman nahian Dilaren arabera antolatzen diren Gizarte Hezkuntza eta Pedagogia Moduluko lan praktikoen koordinazioa aipatu Moduluan aritzen diren irakasleen artean burutuko da.

Europar hezkuntzaren birmoldaketarekin batera, graduetako lehenengo ikasturtean, hala Gizarte Hezkuntzan nola Pedagogia eremuan lan egiteko prestatu behar direnentzat arlo haietariko gako orokorrak eskaintzeaz gain, esparru haiei dagozkien errealitatearen funtsezko ezaguerak eta hezkuntza testuinguru haietan lan egiteko behar diren gaitasunetan sakontzea nahi da.

Horrela, galderetan oinarritutako ikaskuntza partekatua eta praktikari eginiko ikerketaren bidezko ezaguera landuko dugu. Modulu honekin, bada, hezkuntza arloan ariko diren langileentzako zuzendutako lan-aurreko praktikak eta beharrezko ezagutzak eskuratzea ahalbidetu nahi da.

Horretarako, bada, Dilanaren bidez sortutako hausnarketan ikasketa kritikoa bezain gogoetatzailera ere bultzatuko da, egun suertatzen ari den gizarte aldaketei (kulturan, ekonomian edota legedian) aurre egin ahal izateko gauza izango dena.

Modulo berean 3 irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta izanik eta 3 irakasgai edo gehiagotan azken froga eskatzen duten ikasleek, EZ dute DILAN-a egin beharko. Hala ere, ikasleak irakasgai bakoitzaren azken froga horretan, irakasleak aukeratutako frogak, testak, azterketa mota, aurkezpenak edo/eta praktikak egin beharko ditu, irakasgai eta moduluan eskuratu behar diren edukien ezagutza, ikaskuntza emaitzak eta gaitasunak bermatzeko.

1 - DILANa ez gainditzeak ez du esan nahi irakasgaia gainditzen ez denik.

2 - DILANean ez da gutxiengo puntuaziorik behar irakasgaia gainditzeko.

3- DILANeko nota ikasturte bateko bi deialdietan mantentzen da baina ez da hurrengo urterako nota gordetzen edo mantentzen.

## ○ EGIN BEHARREKO LANA

Bigarren Modulua Jarduera Diziplinartekoan zera egin beharko da, txosten idatzia analitikoak. Bertan, hezkuntza arloko profesionalen esperientzia azalduko da testuinguru kontutan izanik eta moduluko bost gaien ekarpenak barneratuz..

Lanak galdera bati erantzun behar dio, argudiatuz betiere. II Moduluko galdera honako hau da:

### **GURE TESTUINGURUAN HEZKUNTZA ARLOKO PROFESIONALEK NOLA BIZI, PENTSATU ETA LAN EGITEN DUTE?**

## ○ METODOLOGIA

Galdera honi erantzuteko hezkuntza arloan lanean ari diren bi hezkuntzako profesionali (formala, ez-formala) elkarrizketa sakona egingo zaie eta hau osatuko da beste iturrietatik jasotako informazioarekin ( Bibliografia, Web-ak, etab).

## ○ IKASGAIEN EKARPENA DILANARI

### Hezkuntza Legedia eta Nazioarteko Ikuspegia

Ikasgai honetatik modu honetara elikatuko dugu Dilana, azpimarratuz estatuko, autonomietako eta nazioarteko hezkuntza legediek eta baita nazioarteko erakundeen ekarpenek hezitzailearen garapen profesionalan izan duten garrantzia. Proiektuan zehar ezagutu eta aztertuko dugu:

- Nola bizi izan duten arloko profesionalek hezkuntza legedian egon diren aldaketak eta zer eragin izan duen hauen eguneroko lanean.
- Nazioarteko erakundeen ekarpenek, zer eragin izan dute hezkuntza arloko profesionalen lanean, zuzenean edo zeharka.
- Ezagutzen al ditu beste hezkuntza sistemak? Erreferenteak al dira bere lanean eta bere garapen profesionalerako?

Bakarkako hausnarketa eta taldearen ekarpena kontutan izanik zera egingo da

- Profesionalek bere irakaskuntza-ibilbidean ezagutu dituzten legedi ezberdinak sailkatu
- Nazioarteko erakundeen ekarpenak identifikatu.
- Beste hezkuntza sistemen ekarpenak aurkitzen saiatu.

### Identitatea eta lanbide garapena.

Hezitzaile profesionalen profila pertsonala eta profesionalari buruz gogoeta eta sintesi lan bat garatuko dugu, halaber beraien esperientzia eta garapen profesionalari buruz. Hona arakatuko ditugun informazio guneak:

- Hezitzaile profesionalen ezaugarriak, berdintasun eta diferentziak.
- Profesioaren testuingurua. Hezkuntza esparruko beste profesionalekin dituzten harremanak.
- Beraien eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten lanabes eta estrategiak.
- Bere ekintza profesionalaren oinarri deontologikoak.
- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bizitza profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bizitza profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

### Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak.

Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak izeneko ikasgaiak gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari buruzko jakin-mina elikatu nahi du. Honako prozedura eta gai hauei kasu egingo zaie:

- Gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari (ikuspegidiakronikoa)
- Ongintzatik gizarte laguntzarako edota sorospenerako bilakaera eta ongizatearen estatu garaikideak (ikuspegi sinkronikoa)
- Aipatu ongizatearen estatu garaikidearen krisialdiak eta ondoriozko heziketa paradigmen birmoldaketa (ikuspegi prospektiboa)

Taldean analitikoki landuak eta banakako sintesian aurkeztuak honako ardatzen baitan:

- Datu bilketatik ondorioztatutako informazio esanguratsuak hurrenkeraren arabera zehazturik.
- Gaitasun teknikorako balekoak diren ekarpenen ebaluazioari bidea emanez.

## **Pedagogia. Teoria eta hezkuntza erakundeak**

Gure ikasgaien murgilduta, Dilanari egingo diogun ekarpena, hezkuntzaren teoriaren kontzeptuak argitzea izango da jardun hezitzailean. Gainera, heziketaren esparru formal, ez-formal eta informalak mugatuko ditugu eta testuinguruan agertu eta nagusitzen diren lanbidearen ildo teoriko-hezitzaileak aztertu. Aztertuko ditugu:

- Hezitzailean bere lana burutzeko beharrezkoak dituen oinarritzko kontzeptu teorikoak.
- Jardun hezitzailearen esparru formal, ez-formal eta informalak antzematen jabetzea.
- Behatu eta aztertzen ari garen jarduna zein ikuspegi teorikotan koka edo sailka dezakegun hausnartu.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Egileen teoria eta definizioak, ulermena, analista eta adierazpena azpimarratuaz.
- Gure eguneroko zereginetan, esparru hezitzaileen mugaketa finkatu, ostean jardun hezitzailean antzemateko.

## **Komunikazioa eta hezkuntza erlazioa**

Gure ikasgaitik modu honetara elikatuko dugu Dilana: gaur egun bizi garen testuinguruan hezitzaile batek behar dituen komunikazio –eta harreman-trebetasunen inguruan laburpen eta gogoeta lan bat egin beharko dute ikasleek. Ondoko informazio ildoak aztertuko ditugu geure ikasgaiaren begiradapetik egingo ditugun galderen bidez:

- Pertsonekin (ikasleekin, hezizaiekin, lankideekin, erabiltzaileekin...) egin behar duen lanari ekiteko hezitzaileak behar dituen komunikazio alderdi esanguratsuak
- Komunikazio positiboa nahiz harreman egokia bideratzen laguntzen dioten estrategien zein tresnen azterketa.
- Harreman eta komunikazio-trebetasunak laburtzea eta ordenatzea. Lan eremu askotarikoen artean erkatzea (gizarte hezkuntza eta pedagogia).

Banakako gogoeta. Talde-azterketa.

Testu batean honako hau ordenatu beharko dute: hezitzaileen oinarritzko harreman eta komunikazio-trebetasunak, baita profesional horiek ematen dieten balioa ikasleek erabili dituzten informazio-iturriak aintzat hartuz. Horrekin guztiarekin txosten bat osatuko dugu Dilanaren txosten orokorrari ekarpena egiteko (DILAN dokumentua).

## II. DILANA BURUTZEKO PROZEDURA

ASTEA	IKASGELAN	LAN EZ-PRESENTZIALA	EMAITZA
1	a: Taldeak antolatu <b>DILAN taldeak klaseko lehenengo astean antolatuko dira eta berdinak izango dira ikasgai guztietan.</b> Taldekide kopurua: 4-5		<b>Taldeak antolatzea</b>
1	DILAN-aren aurkezpen orokorra urtarrilaren 25ean		<b>Taldeak antolatuta.</b>
3	b: DILAN-ri hasiera eman ikasgai bakoitzean .		
6	c: Elkarrizketarako gidoia sortu <b>DILAN-ri esleitutako bost saioetako bi erabiliko dira ikasgaiko, hau egiteko (3 o.). Galdekizunaren item multzoak, bere baitan bilduko ditu ikasgai guztiei dagozkien galderak modu aski eta orekatuan, bakoitzetik sortutako galderak erantzuteko..</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gidoirako galdegaiak bakarka prestatu</li> <li>- Galderak antolatu eta gidoia eraiki, hurrenkeran finkatuaz.</li> <li>- Froga bat egin ikaskideren batekin, galderen ulergarritasuna finkatzeko..</li> </ul>	<b>Elkarrizketa burutu ahal izateko gidoia prest</b>
9/10		<b>Elkarrizketa burutu. Alderdi esanguratsuenak bildu eta eskolan komunikatzeko landu..</b>	<b>Grabaketa, oharrak, etabar</b>
12	d: Analisia talde handian. <b>Ikasgai bakoitzeko saio bat erabiliko dugu. Lantaldeek eskuratutako informazioa konpartitzea da helburua, galderak argitzea eta informazioa nola aztertu lantzea</b>	<b>Transkribaketa burutu, elkarrizketan bildutako oharrak garbira pasa</b>	<b>Grabaketaren edo/eta oharren transkribaketa egitea</b>
13/14		<b>Informazioaren gaineko analisia burutu eta ondorioak idatzi</b>	<b>Ikasgaiari dagozkion ondorioen txostena egin. Tutoreari lan idatzia entregatu, behin-behineko alea 14. astean.</b>
15	<b>DILAN-aren galdera eragiletik eratorritako erantzunaren ondorioak aurkeztu eskolan</b>	<b>Gainerako aurkezpenen balorazioa egin klasean</b>	<b>Balorazioaren idatzizko jasoketa.</b>
16*			<b>Behin betiko entrega</b>

Orduak guztira:	7,5h. Ikasgaiko. 37,5h DILAN guztira	15h. Ikasgaiko. 75h. DILAN guztira	22,5 h. = 0,9 kreditu  112,5 = 4,5 kreditu
Balorazioa	<b>DILANean talde-lanean lortutako nota, ikasgai bakoitzaren notaren 1.5eko balioa du. Honen %70a txostenari dagokio eta %30a aurkezpenari.</b>		

## EGUTEGIA

Itzalarekin azpimarratuta dauden egunak erabiliko ditu ikasgai bakoitzak Dilana lantzeko

ASTE A	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1	urtarrila 25	26	27	28	29
2	otsaila 1	2	3	4	5
3	otsaila 8	9	10	11	12
4	DOZENTZIAR IK EZ	DOZENTZIAR IK EZ	17	18	19
5	otsaila 22	23	24	25	26
6	martxoa 1	2	3	4	5
7	martxoa 8	9	10	11	12
8	martxoa 15	16	17	18	JAIEGUNA
9	martxoa 22	23	24	25	26
10	martxoa 29	30	31	JAIEGUNA	JAIEGUNA
	JAIEGUNA	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ
11	apirila 12	13	14	14	15
12	apirila 19	20	21	22	23
13	apirila 26	27	28	29	30
14	maiatza 3	4	5	6	7
15	maiatza 10	11	12	13	14
16*	BEHIN BETIKO DILAN TXOSTENAREN ENTREGA				

### 31. taldea

**Astlehena: Giza eskubideak, gizarte eta hezkuntza politika.**

**Asteartea: Komunikazioa eta hezkuntza erlazioa.**

**Asteazkena: Identitatea eta lanbide garapena.**

**Osteguna: Hezkuntza legedia eta nazioarteko ikuspegia.**

**Ostirala: Pedagogia. Teoria eta Hezkuntza Erakundeak.**

### 32. taldea

**Astlehena: Identitatea eta lanbide garapena.**

**Asteartea: Giza eskubideak, gizarte eta hezkuntza politika.**

**Asteazkena: Komunikazioa eta hezkuntza erlazioa.**

**Osteguna: Pedagogia. Teoria eta Hezkuntza Erakundeak.**

**Ostirala: Hezkuntza legedia eta nazioarteko ikuspegia.**



## ■ TXOSTENAREN EGITURA

Behin-betiko Dilan txostenak, 4 atal izango ditu (azala, aurkibidea, lana bera eta eranskinak) eta ondoren agertzen diren aurkezpen-arauak errespetatu behar ditu.:

**a- Azala:** bertan idatzita agertu behar dute

- Lanaren izenburua
- Egileen izen-abizenak
- Tutorearen izen-abizenak
- Data
- Gradua
- Moduluaren zenbakia: II Modulua

**b.- Aurkibidean:** agertu behar dute:

- Sarrera
- Elkarrizketatutakoen aurkezpena
- Galdekizunaren eratze prozesua eta moduluko ikasgaiei egiten dien ekarpena
- Elkarrizketaren galdekizuna
- Elkarrizketa bakoitzaren laburpena
- Ikasgaika sailkatu gabeko ondorio orokorrak
- Egindako lanaren taldeko eta bakarkako balorazioak
- Erabilitako erreferentziak (bibliografia, Internet,...)
- Eranskinak

**c.- Lana bera:** aurkibidean agertzen den hurrenkerari jarraituz. Lana zenbakitu egin behar eta aurkibidean aipatu

**d.- Eranskinak**

**e.- Aurkezpen arauak:**

- Tarteak: 2.5 guztian: goi, behe, ezker, eskuin
- 30.000 karaktere kopurua gutxi-gora-behera.

## ■ MODULUAREN JARDUERA DIZIPLINARTEKOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gaiari dagokiona: txostenaren edukiak aipatutako gaia era koherente eta osatuan landu behar du, soberakinik gabe. Era berean, haserako galderari erantzuna izan behar dio.
2. Informazioaren antolakuntza: Informazioa ongi taxutua egon behar du (dokumentuan azaltzen den estrukturari jarraituz). Taulak eta grafikoak ongi eratu, zenbatu eta titulatuak egon behar dute. Informazioa, lortutako datuak, erraz bilatu beharko dira.
3. Ondorioen integrazioa eta justifikazioa. Ondorioek arazoaren ikuspuntu orokorra azaldu behar dute eta emandako datuetan oinarrituta egon behar dute. Ondorioen oinarritzko argudioek argiak eta koherenteak izan behar dute.
4. Idatziaren adierazpena eta zuzenketak unibertsitatean eskatzen den mailari erantzun behar dio idatzizko azalpenetako arlo formal (ortografia, aipuak, erreferentzi bibliografikoak...), kohesioan eta koherentzian oinarrituz.
5. Lanaren ahozko aurkezpena prozesuaren atal garrantzitsua da (erregistro egokia, taldearekiko egokitzapena, taldekide guztien parte-hartzea, irakasleen edo ikaskideen galderei erantzun egokia ematea, aurkezpen denbora errespetatzea...).
6. Autoebaluazioa. Autoebaluazioan ikaskuntza prozesuari buruz, haren barneratzeaz eta hobekuntzarako ateratako ondorioei buruz egindako hausnarketan kalitatea baloratuko dira.

Azken ebaluazioak ikasgai bakoitzari dagokion atalaren oniritzia izan behar du.

## IKASGAIEN PROGRAMAK

### Hezkuntza Legeria eta Nazioarteko Ikuspegia

#### 1. TESTUINGURUA

IKASGAIA / Irakaslea	2º MAILA	KREDITUAK
<b>Hezkuntza legeria eta Nazioarteko ikuspegia</b> Luis M <sup>a</sup> Naya Garmendia Jon Diaz Egurbide	<b>2 Lauhilabetea</b>	<b>6</b>

#### 2. KONPETENTZIAK

- Nazio eta Nazioarteko mailan hezkuntza legediaren oinarrizko osagaiak ezagutzea eta ulertzea.
- Giza Eskubide barnean hezkuntza eskubidearen osagaiak identifikatzea.
- Hezkuntza Nazioarteko Erakunde nagusiek egiten duten lana analizatzea.

#### 3. IKASGAI-ZERRENDA

GAI MULTZOAK	GAIK
1.- Gai Multzoa Hezkuntza eskubidea. Hezkuntzaren Nazioarteko ikuspegia.	1. Gaia: Hezkuntza Eskubidea 2. Gaia: Hezkuntzaren Nazioarteko Ikuspegia 3. gaia: Nazioarteko Erakundeak eta Hezkuntza
2.- Gai Multzoa: Hezkuntza Politika eta Legedia	4. Gaia: Hezkuntza Politika eta Administrazioa 5. Gaia: Espainiako Hezkuntza Sistema. 6. Gaia: Ingalaterrako Hezkuntza Sistema 7. Gaia: Frantziako Hezkuntza Sistema. 8. Gaia: Alemaniako Hezkuntza Sistema

#### 4. METODOLOGIA

Ikasturtean zehar eskola teorikoak zein praktikoak konbinatuko dira eta baita ere Moduluaren Jarduera Diziplinartekoa egingo da. Eskola teorikoak eta saio praktikoak irakas-aktibitatearen muina izango dira, bertan irakasleak irakasgaien eduki nagusiak garatuko ditu eta ikasleen ekarpenak, bakarka zein taldekoak, jasoko dira. Saio hauetan zehar gai bakoitzeko aurkezpen informatiboa egingo da eta aldi berean praktikak egiteko ezinbestekoa den oinarri teorikoa emango da.

## 5. EBALUAZIOA

Ikasturteko ebaluaketa zati teorikoaren (%50), lan praktikoen (%35) eta Moduluaren Jarduera Diziplinartekoaren (%15) ebaluaketen konbinaketa izango da. Zati teorikoa azterketa indibidual baten bitartez ebaluatuko da. Fakultateko Dekanotzak azterketa-data finkatuko du. Lan praktikoa, bakarkako zein taldekoak, maiatzaren 15a baino lehen dossier batean aurkeztu beharko dira.

## 6. MATERIALAK

Oinarrizko bibliografia

- GARCIA GARRIDO, J.L. (2005):** *Sistemas educativos de hoy*. Madrid: Ediciones Académicas S.A.
- NAYA, L.M. (2008):** *El Derecho a la educación: de las palabras a los hechos*. En **VV.AA.: Educación y derechos humanos desde la participación en la convivencia**. Madrid: Fundación SM, pp. 47-72.
- NAYA, L.M. (ed.) (2005):** *La educación y los derechos humanos*. Donostia: Erein.
- PAYÁ, A. (2009):** *Organismos internacionales y políticas educativas*. En M. Martínez, M.J. (Coord): *Educación Internacional*. Valencia: Tirant Lo Blanc. pp. 341-374
- PUELLES, M. de (2009):** *Modernidad, Republicanismo y Democracia: una historia de la educación en España*. Valencia: Tirant Lo Blanc.
- TIANA, A. (2009):** *Por qué hicimos la Ley Orgánica de Educación*. Madrid: Wolters Kluwer.
- TOMASEVSKI, K. (2006a):** *Human rights obligations in education: the 4-A scheme*. Nijmegen: Wolf Legal.
- TOMASEVSKI, K. (2004):** *El asalto a la educación*. Barcelona: Intermón/Oxfam.

Aldizkariak

*Perspectivas / Prospects / Perspectives, 1969-*

Lauhilekoa. XXXI Bilduma arte frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz. Parisko UNESCO. Egun bakarrik euskarri inprimatuan ingelesez argitaratzen da. 2002tik aurrera frantsesezko eta gaztelaniazko bertsioak Nazioarteko Hezkuntza Bulegoko Webgunean kontsultagai dago dohanik: [http://www.ibe.unesco.org/International/Publications/Prospects/content02\\_03.htm](http://www.ibe.unesco.org/International/Publications/Prospects/content02_03.htm)  
 Revista Española de Educación Comparada Anual, Sociedad Española de Educación Comparada/Universidad Nacional de Educación a Distancia. Kotsultagai <http://www.sc.ehu.es/sfwseec/reec.htm> y <http://www.uned.es/reec> webgunean  
 Revista Latinoamericana de Educación Comparada, 2010-Urtekoa, Sociedad Argentina de Educación Comparada. Disponible en <http://www.saece.org.ar/relec/>

Internet:

Sociedad Española de Educación Comparada, <http://www.sc.ehu.es/seec>

**Identitatea eta Lanbide Garapena**

## 1. TESTUINGURUA

IKASGAIA / Irakaslea	2º MAILA	KREDITUAK
Identitatea eta Lanbide Garapena Iban Asenjo Garde Goretti Orbea Aizpitarte	2 Lauhilabetea	6

## 2. KONPETENTZIAK

**Ikasgai honetako helburua, hezitzailearen figura profesionalaren inguruan hausnartzea da. Ogibidearen ezaugarriak, esparruak eta gaitasunak barneratu eta ulertzea etika kodeetatik abiatuz.**

**Ikasgaiaren gaitasunak ondokoak dira:**

- **Gizarte hezitzaileen eta pedagogoen oinarrizko ezaugarriak eta esangurak zehaztea, gaur egungo hezkuntza profesioekin erlazionatuz.**
- **Hezkuntza burubideak ekoiztea, etika eta deontologia printzipioetan oinarriturik, giza eskubideei loturik, genero ikuspegi eta profesional ardura kontutan izanik.**
- **Publikoki eta ahoz, ideiak, argudioak, komunikatzea. Hezkuntza gaiak kudeatuz eta baliabide didaktikoak erabiliz.**
- **Idatzizko informeak lantzea, ongi argudiatuak eta eraturako irizpide formalak erabiliz.**
- **Proposatutako ariketei eta ikasketako eginkizunei, jarrera baikor bat erakutsi.**
- **Talde lanerako gaitasunak adierazi.**

## 1. IKASGAI-ZERRENDA

GAI MULTZOAK	GAIK
1. Hezkuntza profesioak eta beraien garapen historiko eta soziala.	<b>Hezitzailearen identitatea eraikuntza historiko eta sozial gisa. Hezkuntza profesioak gizarte modernoan; hezkuntza zerbitzuen eskaera gaurko gizartean.</b>
2. Hezkuntza eta eremu profesionalen ezaugarriak.	<b>Antzekotasunak eta ezberdintasunak hezkuntza profesionalen eta beste profesionalen artean, baita hezkuntza profesio ezberdinen artean. Genero ikuspuntua. Informazio gizartean identitatearen eraikuntza. Hezkuntza taldeak profesioa zehazteko. Eremu profesionalak non eta hezitzaileek gauzatzen duten beren lana.</b>
3. Hezkuntza profesionalen gaurkotze eta garapena.	<b>Gogoeta praktika, garapen profesionalaren estrategia gisa. Bizitza profesional osoan, etengabeko prestakuntza. Bizitza profesionalaren planifikazioa.</b>
4. Hezkuntza profesionalak talde sozial bat bezala.	<b>Asoziazionismo profesional, elkargo profesionalak. Profesioaren lan ezaugarriak. Etika eta deontologia profesionala. Etika kodeak erabiltzaileen arabera, baita talde profesionalari eta beste profesioari dagozkienak.</b>
5. Hezitzaile profesionalaren gaitasunak.	<b>Emozio gaitasunak. Planifikazio gaitasunak, gestio eta erakundearekiko erlazio kapazitatea. Pertsonen arteko erlazio gaitasunak. Aldaketarako eta hobekuntzarako gaitasunak.</b>

## 2. METODOLOGIA

Planteatutako konpetentziak lortarazteko metodologia ezberdinak erabiliko dira: klase magistralak, hainbat klaseko ariketak, indibidualki nahiz taldeka planteatuak (irakurgaiak, eztabaidak, elkar jartzeak, ikasleen aurkezpenak..) lan praktikokoak eta abar. Metodologia gehienak elkarlana eskatzen dute eta lan horiek taldeetan gauzatuko dira. Printzipioz, talde berdinak izango dira AIM-DILAN II modulurako eraturakoak.

## 3. EBALUAZIOA

Ebaluazio sistema, "etengabeko ebaluazioa" izango da, hau da, araudiak diona, hain zuzen ere, (ikus, 43. artikuluan), "etengabeko ebaluazioa da, irakaskuntza-gidetan definitutako prozesu, tresna eta estrategia didaktikoen multzoa, irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan zehar modu progresiboan aplikatu beharrekoak. Ebaluazio sistema eta tresna hauek askotarikoak izan daitezke oso: jardueretan parte hartzea, praktikak, ahozko eta idatzitako lanak, kasuei buruzko txostenak, proiektuen garapena, problema ireki eta praktikoen ebazpena, irakaskuntza karpeta bat eta bestelako ebaluazio proba; eta, edonola ere, gaitasun espezifiko eta zeharkako guztien garapena bermatu behar da eta irakasgaiaren irakaskuntza gidak agertu beharko ditu".

Gaia gainditzeko, klasera etortzea eta parte hartze positiboa izatea ezinbestekoa da, denboraren arabera %80a eskatzen da gutxiengo bezala. Aipatutako baldintzak betetzen ez dituztenek azken froga bat egin ahal izango dute arautegian agertzen den moduan (ikus, 43c artikuluan).

Azken nota halako ondoriorena izango da, klaseko parte-hartzea (gerturatze barne) eta ikasturtean zehar egindako lanak: Gelako ariketak: %60 Froga indibiduala: %25 eta Dilana: %15

Gerturatzen ez diren ikasleak, azken froga bat egingo dute gaiaren gaitasunak adierazteko (%100) eta dagokien kasutan AIM-DILAN izango du ere bere balorazioa.

## 4. ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Hainbat artikulua eta apunteak eGELAN zintzilikatutak, gehi irakasleak eskuratzen dituenak.

Oinarrizko bibliografia

Ballenato Prieto, G. (2005). *Trabajo en equipo*. Madrid: Pirámide.

Caride, J. A., Gradaïlle, R., & Caballo, M. B. (2015). De la pedagogía social como educación, a la educación social como Pedagogía. *Perfiles educativos*, 37(148), 04-11.

García Areitio, L. et al. (2009). *Claves para la educación*. Madrid: Narcea.

Bedriñana, F. T. A. (2012). Pensamiento y acción socioeducativa en Europa y España. Evolución de la pedagogía y educación social. *Revista Historia de la Educación Latinoamericana*, 14(18), 119-138.

Longworth, N. (2003). *El aprendizaje a lo largo de la vida*. Barcelona: Paidós.

Sáez Carreras, J. (2007). *Pedagogía Social*. Madrid: Pearson Prentice Hall.

Vilar, M. (2013). *Cuestiones éticas en la educación social*. Barcelona: UOC.

Moyano Mangas, S. & Planella Ribera, J. (coords) (2011). *Voces de la educación social*. Barcelona: UOC.

Aldizkariak – Webeko estekak

Revista de Educación

Innovación Educativa

Gizaberri

Diálogos

Clepsydra: revista de estudios de género y teoría feminista.

<http://www.eduso.net>

<http://www.ceespv.org>;

<http://www.ceespv.org/admin/downloads/profesionalizadores/codigodeontologico.pdf>

## Giza Eskubideak eta Gizarte Politika

### 1. TESTUINGURUA

IKASGAIA / Irakaslea	2º MAILA	KREDITUAK
Giza Eskubideak eta Gizarte Politika Amaia Agirre Miguélez	2 Lauhilabete	6

### 2. KONPETENTZIAK

**A) Ezaguerari buruzko gaitasunak: Jakitea.**

(Giza eskubideen oinarriak diren ikuspegi teoriko, soziologiko, etiko nahiz hezkuntzazkoak ezagutzea eta ulertzea)

**B-1) Egiten jakitearen gaitasuna**

a) Txosten idatzia

**B-2) Egiten jakitearen gaitasuna**

a) Ahozko aurkezpena

**C) Egote jakitearen gaitasuna**

(Taldean erantzukizunez lan egitea)

**D-1) Izaten jakitearen gaitasuna (juzku etikoen erabiltzea bereziki gizarte desberdintasunei kasu eginez, emakumezkoen egoerei bereziki)**

### 3. IKASGAI-ZERRENDA

GAI MULTZOAK	GAIK
Gizarte laguntza giza eskubide gisa.	Giza eskubideak eta giza laguntzari buruzko teoriak norbanakoaren nahiz gizartearen eskubide moduan. Osasuna. Irakaskuntza. Lana. Gizarteratzea. Teknologi berrien eskurapena. Etengabeko hezkuntza.
Hezkuntza eskubide gisa eta haren bermea.	Hezkuntza eskubideen ezarpena: kasuan kasuko ebaluapena, gizarte taldeak eta behar berezituak, gutxiengo etnikoak, etorkinak, kaltetuen kolektiboak, generoagatik edo beste arazoengatik diskriminazioak...
Giza laguntzaren	Zuzenbide Positiboa eta giza laguntza. Metazuzenbideak.

oinarri etikoak.	<b>Nazioarteko Elkarreak ( NBE, Europar Batasuna, UNESCO, Gurutz Gorria, Funtsezko ebazpenak eta deontologia kodigoak )</b>
Gizarte Politikak eta lege babesak.	<b>Gizarte praktikak eta eskubideen arteko gatazkak: Bizitza duinaren eskubidea, Elikatua izateko eskubidea, Osasuntsu bizitzeko eskubidea. Norberaren gorputzaz eskubidea, Mugikortasunaren eskubidea, Ingurugiro egokiaz eskubideak, Politikan parte hartzeko eskubideak eta norbera zaintzeko eskubideak.</b>
Estatuaren betebeharrak eta beren mugak.	<b>Estatu bermatzaileen ereduak eta haien desbideraketak. Hezkuntza eta gizarte laguntza bermatzearen eta haien ezarpena nahieraz ez aldatzearen betebeharra: gutxiengo etnikoak, etorkinak, kaltetuen kolektiboak, generoagatik edo beste arazoengatik diskriminazioak...</b>

#### 4. METODOLOGIA

**Ikasketa prozesua mistoa izango da:**

- 1. Ikasgaiaren gaitegian agertzen diren gaitasun kognitiboetan oinarritutako maisu eskolak irakasleak kudeatuta.**
- 2. Ekintza hausnartuan nahiz talde lanean oinarritutako eskola praktikak. Bertan egitasmoak diseinatzea, arazoei irtenbideak ematea eta DILAN delakoa sartzen direlarik ( azken honek ikasgai osoaren ebaluazioaren %1,5 izanik). I**
- 3. Mintegiak: ebaluazio jarraitua abian ezartzeko erabilitako denbora eta espazioa. Ikasgaiaren irizpideen arabera izango da baloratua**

#### 5. EBALUAZIOA

**Talde lana eta aurkezpena: %40a**  
**DILAN: %15a**  
**Bakarkako froga: %35a**

#### 6. MATERIALAK

Oinarrizko bibliografia

**ALBERT GÓMEZ, M<sup>a</sup> J. (2014) La vertiente educativa y social de los derechos humanos UNED: Madrid.**  
**MARTÍNEZ DE BRINGAS, A. (2006) Teoría y práctica de la educación en derechos humanos. Donostia: Alberdania.**  
**RODRIGUEZ, F. (2011) Nacionalismo y Educación. Madrid: Delta.**  
**RODRIGUEZ, F (2016) Giza Eskubideak: Gizarte eta Hezkuntza Politikak. Madrid. Delta**  
**ROUSSEAU, J.J. (2013). Discurso sobre el origen de la desigualdad entre los hombres. Madrid: Delta.**

Aldizkariak

**Pérez Serrano, G. (2005). Derechos humanos y educación social. Rev. de Educación, núm. 336, p. 19-39.**



Vasak, K. (1977). La larga lucha por los derechos humanos. El correo de la Unesco, pp. 29-32.  
 Zizek, S. (2005). Contra los derechos humanos, New Left Review, nº 34 (edición en castellano, SEP/OCT)

Internet:

<http://www.derechos.net/edu/>

**Teoria eta Hezkuntza Erakundeak**

**1. TESTUINGURUA**

IKASGAIA / Irakaslea	2º MAILA	KREDITUAK
<b>Teoria eta Hezkuntza Erakundeak</b> Miren Lore Erriondo Corostola	<b>2</b> Lauhilabetea	<b>6</b>

**2. KONPETENTZIAK**

- **Pedagogia garaikidearen joera nagusiak nola sortu diren eta zein bilakaera izan duten ezagutu.**
- **Hezkuntza Formala, Ez-Formala eta Informala kontzeptuak ulertu, aztertu eta haien mugak, aukerak eta jardunbide profesionalaren ildoak antzemateko gauza izan.**
- **Euskal Herriko hezkuntza errealitatea aztertu, ezagutu eta aurreko kontzeptuak bertan aplikatzeko gai izan.**

**KONPETENTZIAK**

- **Jarduera hezitzailearen testuingurua kritikoki aztertzea eragingo duen ezagutza zientifikoa gauzatu.**
- **Prozesu komunikatzaileen baitako kide aktiboa izan, ezagutza eta esperientziak elkarrekin partitu, ezagutza osoa eta taldekoa eraikiaz.**
- **Pedagogoa eta gizarte hezitzailearen lan jarduneko errealitate pertsonala, soziala, lanbidearena eta instituzionala ulertu eta sakonean ezagutzeko oinarri teoriko/praktiko nagusiak arakatu.**
- **Hezkuntzaren teoriaren, heziketaren eta instituzioen ezagutza kritikoa, malgua, bizia eta irekia eraiki, norberaren eta gainerakoen jarduna aztertu ahal izatea bideratuz, hezkuntza helburuak eta ekintzaren ondorioak gogoan izanik.**
- **Jarduera hezitzaileen moldaketa eta eraldaketen norabide eta testuinguruen gaineko kontzientzia landu.**
- **Ikasgai aztertutako arazoen gainean ahozko eta idatzizko komunikazioa eragin.**
- **Etengabeko hobekuntza barneratu eta gauzatutako lanetan bai eta eskolatan gauzatutako parte-hartzean antzeman dadila.**

**3. IKASGAI-ZERRENDA**

GAI MULTZOAK	GAIAK
<b>HEZKUNTZA</b>	<b>kontzeptua, ezaugarriak, eragileak eta atxikitako beste</b>

	kontzeptuak.
HEZKUNTZA UNIBERTSOA	Hezkuntza Formala, Ez-Formala eta Informala kontzeptuak, bilakaera, esparruak eta jardunbideak.
HEZKUNTZAREN GAINEKO EZAGUTZA TEORIKOA:	Teoria garaikideak. Eskola Tradizionala eta bere oinarri teorikoak. Eskola Berria eta bere ildo teoriko-praktikoak.
TEORIA ETA HEZKUNTZA TEORIAK:	Eskola Berritik eratorritako joera nagusiak: kritika antiautoritarioa, ikuspegi sozialista, anarkista, pertsonalista, deseskolatzea, postmodernismoa, mugimendu alternatiboak.
TEORIA ETA HEZKUNTZA ERAKUNDE GARAIKIDEAK EUSKAL HERRIAN:	Erakundeen sorrera eta bilakaera. Jardunbideak.

#### 4. METODOLOGIA

Metodologia parte-hartzaileaz baliatuko gara, ezagutza eta esperientziak elkar partituz ezagutza eraiki.

Honako estrategia hauek erabiliko ditugu ikaskuntza gauzatu eta ezagutza eraikitzeko:

- Talde aurrean egindako aurkezpenak, analisiak eta elkarrizketak.
- Mintegiak talde txikietan.
- Elkarlana eta banakako lana.
- Eskolak.

#### 5. EBALUAZIOA

Ebaluaketa jarraia eta formatzailea izango da: ikaskuntza giltzarri hartuta, ikaslearen lana oinarri hartuta eta irakaslearen zein ikaskideen iritzia gogoan izanda.

Modulua osatzen duten beste ikasgaiekin batera, ikasleak Moduluko Diziplinarteko Lana (DILAN) egin beharko du. Hau egitea ezinbesteko baldintza izango da ikasgaiaren nora eskuratu ahal izateko. DILAN lanari azken notaren %15 portzentajea dagokio.

Eskola dinamikan parte hartzen duten ikasleen ebaluaketa-modua izango da:

- Talde lana eta aurkezpena (DILAN) 15%
- Talde lanak eta aurkezpenak (praktikak) 20%
- Banakako lanak eta aurkezpenak (praktikak) 30%
- Ikasgaiaren gaineko lan monografikoa eta aurkezpena 35%

Horrez gain, ikasleek aukera izango dute deialdiari uko egiteko. Horretarako eskaria irakasgaiko irakasleari egin beharko diote idatzi bidez eta azterketarako zehaztutako garai ofiziala hasi baina gutxienez hamar egun lehenago.

Ikasleari, justifikatutako arrazoiengatik ezin bazaio egin etengabeko ebaluazioa, bukaerako proba bakarra egingo zaio, irakasgaiko jakintzak eta gaitasunak bereganatu dituela egiazta dezan. Proba horrek irakasgaiko notaren %100<sup>a</sup> balioko du. Moduluko Koordinatzaileak adieraziko dio egoera horretan dagoen ikasleari zein den jarraitu beharreko prozedura.

Aurkezteke oharrak, deialdiari uko egiten zaiola adierazten du.

## 6. MATERIALAK

### Oinarrizko bibliografía

**Carr, W.** (1991). *Hacia una Ciencia Crítica de la Educación*. Barcelona: Laertes; pp: 145-60.

**Freire, P.** (1997). *A la sombra de este árbol*. Barcelona: El Roure.

**Mardones, J.M.** (2002). *Educación para una sociedad más humana. La educación ante la economía y la cultura*. Leioa: Servicio de Publicaciones. UPV/EHU, pp: 83-95.

**Grundy, S.** (1991). *Producto o Praxis del Currículo*. Madrid: Morata, pp: 40-63.

**Sanvisens, A.** (1987). *Introducción a la Pedagogía*. Barcelona: Ariel

**Trilla, J.** (2001). *El legado pedagógico del siglo XX para la escuela del siglo XXI*. Barcelona: Graó.

### Aldizkariak

- BORDÓN. Revista de la Sociedad Española de Pedagogía. Madrid.
- COMUNICACIÓN Y PEDAGOGÍA. Bartzelona.
- CUADERNOS DE PEDAGOGÍA. Revista mensual de educación. Bartzelona.
- EDUCACIÓN Y SOCIEDAD. Revista trimestral de educación. Bartzelona.
- HIK HASI. Euskal Heziketarako Aldizkaria.
- REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE TEORÍA DE LA EDUCACIÓN. Salamancako Unibertsitatea.
- TANTAK. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria. Donostia.
- UZTARO aldizkaria. Bilbo

### Internet:

- <http://www.buruxkak.org/>. UEUko liburutegi digitala.
- <http://www.cuadernosdepedagogia.com>. Cuadernos de Pedagogía aldizkaria.
- <http://www.education.gouv.fr>. Frantziako Hezkuntza Saila.
- <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/publica/tantak/tantak.htm>. Tantak aldizkaria.
- <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2591/eu/> Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- <http://www.hikhasi.com>. Hik Hasi aldizkaria.
- <http://www.mec.es/> Ministerio de Educación y Ciencia.

**Komunikazioa eta Hezkuntza Erlazioa.**

**1. TESTUINGURUA**

IKASGAIA / Irakaslea	2º MAILA	KREDITUAK
Komunikazioa eta Hezkuntza Erlazioa <b>Aingeru Gutierrez-Cabello</b>	2 Lauhilabetea	6

**2. KONPETENTZIAK**

1. Balizko hezkuntza egoeretan gertatzen diren komunikazio elementu nagusiak identifikatzea.
2. Hezkuntza testuinguruetan komunikazioa errazten zein oztopatzen duten elementuak bereiztea.
3. Komunikazio testuinguru partekatuak eratzeko esku-hartze estrategiak sortzea.
4. Beste pertsonekin elkarrekintzan zein lantaldean aritzeko komunikazio-trebetasunak garatzea.
5. Norbere argudioak eta ideiak justifikatzeko gai izatea elkarrekiko errespetuzko eremu batean.
6. Erlaziozko testuinguruak sortzea askotariko egoera hezigarrientzat.

**3. IKASGAI-ZERRENDA**

GAI MULTZOAK	GAIAK
<b>Komunikazioaren oinarriak</b>	Komunikazioa ikuspegi sistemikoaren begiradapetik. Elkarrekin gaude, elkar hezitzen dugu. Hezkuntzazko harremanaren eta komunikazioaren hurbilketa gaur egun gizarteetan eta testuinguru instituzionaletan. Komunikazioa heziketa prozesuan. Elementuak eta prozesua. Komunikazioa sistema gisa.
<b>Komunikazioa prozesuak hezkuntza testuinguruetan.</b>	Elkar bizi: elkarrekin bizi. Komunikazio estiloak. Komunikazioa laguntzen duten elementuak eta oztopatzaileak
<b>Lotura afektiboen ezarpena hezkuntzazko komunikazio zein harremanean.</b>	Entzuketa prozesuak. Komunikazio sare ikusgarriak eta ikusezinak. Ahozko eta ez-ahozko komunikazioa.
<b>Talde egitura hezkuntza prozesuetan (talde zein hezkuntza lantaldeekiko pertenenentzia)</b>	Emozioa komunikazioan Komunikazioa eta erlazioaren azterketarako eta hobekuntzarako teknikak eta gaitasun profesionalak
<b>Komunikaziorako zein erlaziozko teknika, estrategia eta gaitasunak (zeharkakoa)</b>	Komunikazioa eta erlazioaren azterketarako eta hobekuntzarako teknikak eta gaitasun profesionalak

#### 4. METODOLOGIA

**Ikasgaiaren garapen metodologikoak ikasleen aurrezagutzetan eta esperientzietan oinarritzen da. Metodologia teoriko-praktikoak, saio praktikoak eta magistralak uztartzen ditu, non gogoetara, kontrastea eta sorkuntza bultzatzen duten dinamikek lekua hartzen duten, eta ezagutza sortzeko jarrera aktiboa bilatzen dute. Saio magistraletan ezagutza teorikoaren oinarri finkatuko dira, profesionalen zereginaren garrantzia azpimarratuz.**

#### 5. EBALUAZIOA

1. ***Etengabeko ebaluazioa klasera normaltasunez etorri eta lanak egiten dituen ikaslearentzat.***

**1.-Taldea lana (%25) eta DILAN lana (15%)**

**2.-Bakarkako lanak (30%)**

**3.-Praktika indibiduala (30%)**

**Etengabeko ebaluazioan parte hartzeko ikasleek %80 asistentzia izan beharko du (eskola magistralak, mintegiak, DILAN).**

**Etengabeko ebaluazioaren prozesuaren barne dagoen ikaslea eta deialdiari uko egin nahi badio, irakasleari adierazi beharko dio ikasgaiaren denboraren 2/3 pasa baino lehen (10 aste).**

2. ***Azken froga izateko, bakarkako froga, klasera ez doazen ikasleentzat: ikasgaiaren ulertuntza orokorraren gaineko froga (%75); arazo baten analisia (%25).***

#### 6. MATERIALAK

Oinarrizko bibliografia

**Asensio, J.M. (2010). El desarrollo del tacto pedagógico. Barcelona.**

**Albadalejo, Marta. Cómo decirlo. Barcelona: Graó. 2010. 233 p. ISBN 978-84-7827-891-6.**

**Ballenato, G. (2006). Comunicación eficaz. Teoría y práctica de la comunicación humana. Madrid: Pirámide.**

**Basterretxea Polo, J. I. (2002). Kultura- aniztasuna eta gizarte-komunikazioa. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. 330 p. ISBN 8484380262.**

**Bonals, J (1996). El trabajo en equipo del profesorado. Barcelona: Grao.**

**Fernández Collado, C. y Galguera, L. (2008). La comunicación humana en el mundo contemporáneo. México: MacGraw-Hill. 441 p. ISBN-10: 970-10-6642-1.**

**Freire, P. (1973). ¿Extensión o comunicación? México: Siglo XXI. 108 p. ISBN-13: 978-970-10-6642-3 (Segunda edición: 970-10-2825-2).**

**Fernández Solis, J.D. y García Cerrada, J. (2010). El valor pedagógico del humor en la Educación Social. Bilbao: Desclee de Brouwer.**

Guell Barcelo, M. (2005). *¿Por qué he dicho blanco si quería decir negro?: técnicas asertivas para el profesorado y formadores*. Barcelona: Grao. 135 p. ISBN 9788478273652.

Jauregi, P. y Huegun, A. (2005). *Sentitu. Hezitzaileak harreman-trebetasunak lantzen*. Donosti:Utriusque Vasconiae. 227p. ISBN 849340666X.

Parcerisa, A., Ginés N. y Fores, A. (2010). *La educación social. Una mirada didáctica*. Barcelona: Graó. 2010. 149 p. EAN13: 9788478279647.

Riera i Alibés, R. (2011). *La conexión emocional*. Barcelona: Octaedro. 296 p. ISBN: 978-84-9921-168-8.

ROGERS, G. (1995). *El camino del ser*. Barcelona. Kairós.

Internet:

- [www.eduso.net](http://www.eduso.net)
- [www.cuadernosdepedagogia.com](http://www.cuadernosdepedagogia.com)
- [www.peretarres.org/revistaeducacionsocial/](http://www.peretarres.org/revistaeducacionsocial/)

**Dokumentu honen egileak: Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako II. Moduluko irakasleak diren Luis Mari Naya, Amaia Agirre, Aingeru Gutierrez-Cabello, Alba Madinabeitia, Iban Asenjo, Goretti Orbea, Jon Diaz eta Lore Erriondo; Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza graduetakoko koordinatzaileak diren Eli Arrieta eta Beronika Azpillaga (2020-2021 ikasturtea).**